

## Zerga kontuan EAEkiko bazterketa salatu du Larreak

C.L. / BILBO

Jose Luis Larrea Gasteizko Hazienda sailburuaren iritziz, Euskal Autonomi Elkarteak zerga kontuan «tratu guztiz baztertzaila» jasotzen du Madril aldetik, batez ere Nafarroarekin alderatuz gero, «bertako neurriak ez baititu inoiz errekurritzen».

Zerga neurri bereziak biltzen dituen foru arau bakoitzari Madrilerekin errekurtsoa ezartzeari «politikoki onartezin» deritza Jaurritako Hazienda sailburuak.

Ondo iruditzen zaio Nafarroak onartzen dituen arauak inolako arazorik ez izatea, baina Iruñeak EAEtik hartu eta egokitzen dituenek ere ez dutela errekurtsorik izaten gogorarazi zuen Vasco Pres berri agentziak egindako elkarriketan.

Errekurtsoen arazoa Bruselarekin konpontzeko urte amaierara arteko epea dauka Eusko Jaurritzak, Larreak esanetan. Arazoa konpontzen ez bada «erakundeen arteko gatazka handitu egingo» dela adierazi zuen, eta «oso negatiboa» litzatekeela gaineratu.

**EUSKAL BANKU PUBLIKOAREN** gainera EAEko Banku Publikoaren gainean «nahiko adostasun orokorra» lortzea espero du Hazienda sailburuak. Sozialistekin koefizienteekin zerikusirik ez dituzten gaitan jarriko lirateke ados eta PPrekin ere nolabaiteko akordioa lortzea posibletzat jotzen du. Gainera, lege proiektuak EA eta EUEren onspena jasoko luke.

Horrela, Gasteizko Gobernuak kidearen esanetan, urtarrilean Gabonetako oporren ostean onartuko luke Eusko Legebiltzarrek lege proiektua.

Kutxa koefizienteen kudeaketa bereganatu ala ez EAEko Banku Publikoa «errentagarria» izango dela berretsi zuen Hazienda buruak, eta hori erakusten duten dokumentuak eta azterketak badituztela adierazi.

Lege proiektua hobetu edota zenbait gai argitzeko bidean «ahal den adostasun zabaleña lortzeko» ahaleginak egingo dituzte jeltzaleek, Larreak ziurtatu zuenez.

# Metalgintzako hitzarmenak aurrez aurre jarri ditu ELA eta UGT-CCOO

Azken hauek auzitegira jo lezakete hitzarmena baliogabetzeko

**E**uskal sindikatuen arteko harremanetan azkenotan nabari den urruntzea agerian utzi du orain Bizkaiko metalgintzako hitzarmenak. ELA sindikatuak eta Bizkaiko Metalgintzako Enpresen Federazioak sinatu zuten hitzarmena ez zuen ontzat eman LABek. UGTk eta CCOOk, berriz, auzitegietara eraman lezakete.

BILBO

Bizkaiko Metalgintzako Enpresen Federazioak eta ELAk 1993rako sinatutako hitzarmen kolektiboaren aurkako lege ekintzak aurrera eramatea aztertzen ari dira UGT eta CCOO sindikatuak, akordio hori indarrean sar ez dadin ahalegintzeko.

Adolfo Alonsok eta Pedro Gomezek, UGTko eta CCOOko metalgintzako arduradunak hurrenez hurren, hitzarmen hori gaitzetsi egin zuten atzo Bilbon eginiko agerraldian.

Sindikalista hauek gogor salatu zuten ELAren jokabidea. «Elkartasunik eza» eta «patronalarekiko adostasuna» leporatu zizkieten sindikatu abertzaleari hitzarmen hori sinatzeagatik.

«ELAren sindikalismoaren eredia agerian geratu da hitzarmen horrekin», adierazi zuen Adolfo Alonso UGTkoak. «ELArentzat Euskadi bere etxaldea da eta jauntxoak balitz bezala jokatzeko», gehitu zuen. «Sindikatu horrek jauntxoaren sindikalismoa erabiltzen du eta enpresari zerbizura dago», salatu zuen UGTk.

## Gobernuen politika ekonomikoen aurka mobilizatzen deitu du Herri Batasunak

MONTSE ARREGI / BILBO

Madril, Gasteiz eta Iruñeko gobernuen politika ekonomikoak salatu du Herri Batasunak, eta langabeziaren aurkako eta lan baldintzen hobekuntzarako neurriak errebindikatu.

Politika horien aurka eta Madrilgo Gobernuak iragarritako gizarte-babes alorreko murrizketak salatzeko, datorren igandean giza kateak egitera deitu du Hego Euskal Herriko herri askotan, Gasteiz, Iruñea eta Bilbo barne.

Carlos Rodriguez HBko Mahaia Nazionaleko Ekonomia arduradunak eta Yolanda Jubeto Bizkaiko Mahaiko kideak atzo Bilbon adierazi zuten, «gizarte ezin da geldirik egon» PSOE,



Adolfo Alonso UGTko metalgintzako idazkaria.

XOUSE SIMAL

Bizkaiko metalgintzako hitzarmenak eraginkortasun mugatua izango duela azpimarratu zuten bi sindikatuotako ordezkariak, sektoreko langileen ordezkapenaren % 60k ez baitu bat egin konbenioarekin.

Era berean, enpresari asko Bizkaiko Metalgintzako Enpresen Federazioan ez direla ordezkariak sentitzen ziurtatu zuten. Azken enpresari horiek «gurekin negoziatu nahi dute negoziatu beharreko kontuak».

«Bizkaiko patronalak seriooki erabaki behar du hemendik aurrera norekin nahi duen hitzarmen kolektiboa negoziatu», baietsi zuten UGT eta CCOOko kideek.

Sindikatuaren arteko ezadostasunaren eragile nagusia hitzarmen horretan sinaturiko lan egitearen malgutasunari dagokio. ELAk sinatutako hitzarmenak 60

orduko boltsa jasotzen du enpresaren beharren arabera eta ordu horiek gehitu egin daitezke enpresak eta langileek hala erabakiz gero.

UGT eta CCOOren ustez, hitzarmenean jasotako beste eduki guztiak ez dira berez oztopoak sinatzeko, baina ordu boltsa gehitzeko posibilitateak «lanaldia- ren desarautzea dakar, enpresen negoziazio indibiduala bultzatzen du eta kolektiboa arriskuan jarri».

Azkenik, bi sindikatuotako ordezkariak ziur dira ELAk hitzarmena negoziatu izan ez balu patronalak ontzat emango zukeela lanordu boltsa hori langileen ordezkarien kontrolpean erabiltzea. Alonso eta Gomez kezkatuta azaldu dira datorren urteko hitzarmenaren negoziazioan aurtengo egoerak izango duen eraginaz.

## Inbertsioak finantzatzeko 5.000 milioiren 'bizkaibonoak'

BILBO

Bizkaiko Diputazioak bigarren 'bizkaibono' jaulkipena egin du, herrialde honetan azpiegitura lanetarako egingo diren inbertsioak finantzatzeko helburuz. Jaulkipen hau 5.000 milioi pezetakoa da.

Jose Albero Pradera Bizkaiko diputatu nagusiak zor jaulkipena aurkezteko ekitaldian azpimarratu zuenez, «hau oso une egokia da foru zorpetze berririko antolatze, interes tasen jaitzieraren ondoren finantza zama aurrikusitakoa baino txikiagoa izango delako».

Jaulkipen honetan parte hartuko duten finantza entitateei —BBK, BBV eta Banco de Santander— 'bizkaibonoak' Espainia osoan saltzea eskatu zien Praderak, «Estatuko zorra hemen saltzen den bezala».

Bizkaiko Diputazioaren zor publikoa 65.000 milioi pezetara iritsi da dagoeneko eta, Praderak azpimarratu zuenez, azken jaulkipen honekin Diputazioaren zorra ez da gehituko, «aurreko partidak ordezkatu egingo baititu».

'Bizkaibonoak' % 8,20ko interesa izango dute eta inbertsioek urtero jaso ahal izango dituzte etekinak. Amortizazioa bost urtekoa izan da.

Diputazioak finantzatzeko pagareak jaulkitzeari utzi zionetik egiten duen bigarren bono jaulkipena izango da hau. Lehenengoa iazko irailean egin zuen.

## Zutik-ek gizartea mobilizatzen deia egin du

BILBO

Nahiz eta UGT eta CCOOk batetik eta ELA eta LABek bestetik deitu dituzten mobilizazioak «nahiko ez» direla uste duen, Zutik alderdi politikoak ekintzotan parte hartzeko deia egin du.

Zutik-en arabera, Espainiako gizarte ituna sinatzeko epea bukatu ondoren, hau da, hilaren 30etik aurrera, Madrilgo Gobernuak «terapia basatia» izango diren dekretuak kaleratzen hasiko da.

Sindikatuaren artean sortu diren bi taldeen arteko eztabaiden aurretik «Gobernuaren neurriei aho batez erantzuteko borondatea» egon beharko litzatekeela uste du Zutik-ek.